

JARDUERA MEMORIA 2019

EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN MUNDUKO GEOPARKEA



SARRERA

Geoparkean 2019 an egin diren jarduerak 2016-2020 Plan Estrategikoan eta urteko zehaztapenean oinarrituta daude, hala nola 2019ko Kudeaketa Planean, Geograpen Batzar Nagusiak 2019ko otsailaren 19an onetsitakoan.

Hauek dira Geoparkearen lan-ildoak:

3 PILARES ESTRATÉGICOS + 2 PILARES ESTRATÉGICOS TRANSVERSALES



2019. urtean errebalidaren emaitza eman digute, TXARTEL BERDEA. Beste lau urtez Unescoren Munduko Geoparke izateko aukera ematen digu, 2022ra arte. Ordurako, Unescok bidalitako eskutitzean gomendatzen diren ekimenak aurrera eraman behar ditugu. Datorren urteetako Gestio Planetan sartuko dira zeregin hauek Plan Estrategikoarekin bat datozen neurrian.

1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA


Ardatz honen baitan, ikerketa, lurraren zientzien gizarteratzea, geodibertsitatea eta ondare natural eta kulturalaren kontserbazioari lotutako helburuei erantzuna ematen zaie.

Ondare geologikoaz gainera, ondare arkeologikoa, itsas-ondarea eta ondare ukiezina ere garatzen dira atal honetan. Ingurumen hezkuntza ere ardatz honetan lantzen da, Geoparkea publiko orokorarentzat eta, bereziki, ikasleentzat interesgune bihurtuko duena.

1.1 LURRAREN ZIENTZIA ETA GEOLOGIAREN IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

Ikerketa-lanak. Geoparkeak honako proiektu hauek bultzatu ditu:

- "Análisis de Dinámicas Gravitacionales en Zona del acantilado costero del Geoparque de la Costa Vasca en Zumaia (Gipuzkoa)", Jon Ander Clementek Master amaierako lan gisa egina, EHUko Tomás Morales Juberias eta Jesús Ángel Uriarte Goiti irakasleen zuzendaritzapean.
- "Euskal Kostaldeko (Gipuzkoa) Geoparkearen paisaiaren interpretazioa ezaugarri geologikoen bidez", UPV-Geoparkea hitzarmenaren esparruan zehaztua, Universidad Sociedad 2018 programarako.



Dibulgazioa eta prestakuntza

- Geogaceta artikulua argitalpena: "*Evolución ambiental del estuario del Deba (Geoparque de la Costa Vasca) durante el Holozeno y el Antropoceno*" Naima El bani Altuna¹, Alejandro Cearreta², María Jesús Irabien³, José Gómez Arozamena⁴, Sergio Hernández², Khalid Soualili² y Asier Hilario⁵

- CPG-SGE 2019 Tenerife. *“Conservación de huellas fósiles en un contexto erosivo. Acciones y estrategia en el flysch del Geoparque Mundial de la UNESCO de Costa Vasca.”* A. Hilario, I. Mandiola, J. Zulaika y L. Barriuso.
- Kuaternarioko XV. Bilera Nazionala. Kuaternarioa Euskal Herrian: Bilboko itsasadarra eta Euskal Kostaldeko Geoparkea. *“Geoparkea: Euskal Kostaldeko UNESCOn Munduko Geoparkearen hastapenak”* Asier Hilarioren hitzaldia.
- Kuaternarioko XV. Bilera Nazionala Bilbon egin zen 2019ko uztailen eta irteera Geoparkean izan zen.
- *“Mutrikuko ammonite erraldoiak”* 2019ko Geolodiaren koordinazioa, edukiak diseinatzea eta gida lanak, Mikel Lopez-Horguerekin batera, Geoparkean.
- Batzorde zientifikoaren prestakuntza, atariko programa, komunikazio-liburuaren kudeaketa eta 2020ko urrian Geoparkean Espainiako Paleontologia Elkartearen XXXVI. 2019an egin da jardunaldiak antolatzen hautagaitzaren aurkezpena, Bazan.
- Geotalks: *“Zumaia eta dinosauroen desagertzearen gakoak”* ekitaldiaren diseinua, kontaktuak eta aurkezpena Jose Antonio Arz eta Estibaliz Apellaniz zientzialariek, Geoparkean Europako Astearen baitan.
- Ohorezko Geoparkezalea den Xabier Orue Etxebarriaren omenaldiaren antolaketa eta aurkezpena, Geoparkean Europako Astearen baitan.
- Deban ospatu den Karst-aren tailerra diseinatu eta koordinatzea EHUko ikertzaile eta Felix Ugarte Espeleologia Elkartearekin batera, Geoparkean Europako Astearen baitan.
- Ermitia kobazulorako txangoa prestatu eta gidatzea Felix Ugarteko espeleologoen batera, Geoparkean Europako Astearen baitan.
- EHUko Paisaia Masterreko ikasleei harrera Geoparkean.
- EHUko Ingurumen Geologiako ikasleei harrera Geoparkean.
- *“Pirinioetako mendiak eta geologia”* hitzaldia, Tolosako Amalur jardunaldietan.
- *“Geoparques, los destinos más innovadores del Turismo sostenible”* hitzaldia, Erdialdeko Kataluniako Geoparkean.
- Maestrazgo Geoparkearen jardunaldi irekietan parte hartzea, *“Geoparques, los destinos más innovadores del Turismo sostenible”* hitzaldiarekin.
- Cabo Ortegal-go Geoparke (A Coruña) proiektuaren jardunaldi irekietan eta tailerrean parte hartzea.
- SGE-ren Ondare Geologikoari buruzko jardunaldietan parte hartzea, Tenerifen, eta *“Conservación de huellas fósiles en un contexto erosivo. Acciones y estrategia en el flysch del Geoparque Mundial de la UNESCO de Costa Vasca”* aurkezpena.
- UICNren Batzorde Nazionalak Urdaibain egindako jardunaldietan parte hartzea, *“Geoparques, memoria de la Tierra, futuro de las personas”*

- Geoparque Volcanes de Calatrava-ren (Ciudad Real) proiektuaren aurkezpen jardunaldietan eta lan mahaietan parte hartzea. *“Geoparques, memoria de la Tierra, futuro de las personas”* hitzaldia.
- Granadako Geoparkearen batzorde teknikoaren bileran parte hartzea.
- Geoparkea EHUko *“Geologia poeta, miope eta despistatuentzat”* dibulgazio geologikoko jardunaldietan sartzea.
- Helduen hezkuntzako Plus 55 programan parte hartzea, Euskadiko geologia eta Geoparkeko flysch-a azaltzeko.



1.2 ONDARE ARKEOLOGIKO ETA HISTORIAURREKO ONDAREAREN IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

Historiaurrea da datozen urteetan Geoparkean garatu beharreko produktuetako bat. Aurreko urteko lanarekin jarraituz, urte honetan zehar honako hauek egin ditugu:

- Ermittia haitzuloko kuadríkula Felix Ugarte elkarteko espeleologoekin eta Xabier Peñalver eta Josean Mugica arkeologoek aginduekin. ***“Historiaurrea Deba bailaran”*** aurreproiektua kontratatzeko klausula teknikoaren pleguak idatzi dira, eta proposamenak egin dituzten enprekin lekua bisitatu da.
- Aranzadi Zientzia Elkarreak argitaratutako Kiputz liburuan parte hartzea, Euskal Kostaldeko Geoparkeari buruzko erreportaje batekin, Kiputz kobazuloaren testuinguru gisa.

1.3 INGURUMEN HEZKUNTZA

2019an, ingurumen-hezkuntzako jarduera hauek garatu dira, beste eragile batzuekin lankidetzan.

- *Barbacana, la huella del Lobo* filmaren emanaldia Mutrikun, Naturaldiaren egoitza gisa, Carlos de Hitak naturan grabatutako soinuen performance bat aurkeztu zuen.
- II. Ornitho sarietan parte hartzea, Aranzadi eta beste eragile batzuekin batera.

- Geoparkeko eskoletan Agenda 2030en eta Unesco Etxeko GIHen sentsibilizazio-saioetan parte hartzea.
- *Itsas Gelako* "Zero hondakin uretan" kanpainaren baitan, Mater itsasontzia Mutrikuko portura etorri zen. Bi egunez bisita gidatuak eta tailerrak egin ziren eta "*Nuestro residuo, nuestro problema*" filmaren emanaldia ospatu zen.
- Legazpiko Ingurugelak antolatuta eta Agenda 21 programako irakasle arduradunei zuzenduta, kostaldearen kutsadurari buruzko prestakuntza saio bat eskaini zuten Geoparkeko teknikariek Zarauzko Berritzegunean.

Geoeskolak

Geoeskolak proiektuaren barruan, programa didaktiko berri bat prestatu da Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako. 6 saio pilotu egin dira proposamena aztertzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko. 2019an Debako eta Mutrikuko ikastetxeak izan dira proba pilotuetan parte hartu dutenak.

Gainera, iaz egindako material didaktikoa sustatu da Berritzegunearen plataformaren bidez. Aipatu behar da plataforma horretan kokatu dutela Zumaiako kostaldeko geodibertsitatea ezagutzeko programa didaktikoa, STEAM kontzeptua garatzeko jarduera berritzaile gisa (Science, Technology, Engineering, Art & Maths).



2. ARDATZA: GEOTURISMOA

2.1 GEOPARKEAN GEOTURISMOA SUSTATZEKO PRODUKTU ETA BALIABIDEAK

Geoparkeak turismo iraunkorraren aldeko apustua egiten du, eta urratsak ematen hasi da lurraldea natura-helmuga bihurtzeko, non kudeatzaileek zein sektore pribatuak ekoturismoaren irizpideak aplikatzen dituzten.

◆ Euskadiko Ekoturismo Sarea


Geoparkea Euskadiko Ekoturismo Sareko kide da sortu zenetik, Naturgune babestuak eta Urdaibai eta beste turismo eragile batzuekin batera. Sareko bilera ugari egin dira, eta Geoparkeak zeregin nabarmena izan du sare horretan. 2019ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean, Euskadiko Ekoturismoaren II. Foroa egin zen Gasteizko Europa Jauregian. Bertan, Euskal Kostaldeko Geoparkeak bere Geoturismo-eskaintzari buruzko hitzaldia egin zuen.

◆ Espainiako Ekoturismo Kluba

Aurretik aipatu den foro honetan, Basquetourrek eta Espainiako Ekoturismo Klubak hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horren bidez, Geoparkea eta haren enpresa laguntzaileak klubeko kide bihurtu ziren, eta beraz, Soy Ecoturista markaren sustapenaren eta Turespañaren nazioarteko sustapenaren onuradun gara. 2019an, Guadixen ospatu zen Ecoturismoko kongresuan izan gara, "Geoturismoa produktu turistiko gisa" ponentziarekin.

◆ Kirol ekitaldiekin lankidetzatza: Lasturko mendi martxa

Geoparkearentzat lehentasunezkoa da Geoparkea barnealdearekin identifikatzen lagunduko duten ekitaldiak bultzatzea, eta gainera, eremu horietan dinamika ekonomikoak sortzea. Beraz, 2019an ere elkarlanean aritu gara Lasturko Mendi Martxaren antolakuntzarekin, "Geoparkeko karstaren bira" azpigituluarekin, ibilbidearen mapa sortu eta inprimatuz. Bertan ibilbidearen interes-puntuak azaltzen dira eta Geoparkearen sare sozialen bidez zabaldu dugu probaren inguruko informazioa.



2.2 BISITA GIDATUEN PROGRAMA

Bisita gidatuen programa Geoparkeak duen dibulgazio-tresnarik eraginkorrena eta baloratuen da. Bisita gidatuen programa oso batek bereizten gaitu gainerako helmuga kultural eta naturaletatik.

2019an Aste Santua eta azaroko zubiaren artean bisita gidatuak programatu dira egunero eta neguko hilabeteetan asteburuetan mantendu dira bisitak. Programaren proposamena 16 bisita gidatu motek osatu dute, eta horietako 1.400 bisita inguru programatu dira. 18.301 lagunek parte hartu dute 2019ko bisita gidatuen programa ofizialean, eta horrek iazko datuetan mantentzea suposatu du.

Talde-merkatuaren kudeaketa finduz joan da. Geoparkearen helburua hirukoitza da:

- Geoparkea ezagutzera etortzen diren taldeei zerbitzurik onena eskaintzea.
- Motibazio teknikoagoko edo zientifikoagoko talde berriak erakartzea.
- Taldeen interesa Zumaian itsasontziz egindako bisitatik haratago zabaltzen saiatzea.

Beraz, hezkuntza arloko taldeak Algorri interpretazio zentrora bideratzen dira, eta neurriari bisita antolatu nahi duten aisialdi taldeak Geoparketik zuzenean kudeatzen dira.

Bildutako datuen arabera, Algorri Interpretazio Zentroak 18.904 bisitari jaso ditu, eta horietatik 11.211 hezkuntza arlokoak izan dira, %59. Geoparkeak 43 aisialdi talde kudeatu ditu guztira; gutxi gorabehera 1.740 lagunek egin dute bisita gidatua Geoparkean.

Flysch Esencial bisitarako audiogida zerbitzua eskaintzen jarraitzen dugu: ingelesez, frantsesez edo alemanez. Audiogiden erabilera handitu denez, aparatuak eta entzungailuak berritzea beharrezkoa izan da eskariari aurre egiteko.

Gogobetetze-inkestak egiten zaizkie bisitetan parte hartu duten bisitari guztiei; 2019an, 1.467 inkesta bete dira, 10etik 8.5eko batez besteko balorazioarekin. Hobekien baloratutako alderdiak erreserba-prozesua eta jasotako tratua dira.

2019an amaitu da bisita gidatuen programaren esleipena, lau urteren ondoren. Pleguak idatzi dira eta bi urterako kontratazioa elektronikoki lizitatu da, beste birako luzatzeko aukerarekin. Enpresa bakarra aurkeztu da eta baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu da; beraz, laster zerbitzua esleitzeari ekingo zaio.

Merkaturatzea

Turismoa sustatzea, funtsean, Basquetour-en eta San Sebastian Region-en ekintzen bidez egin da. Hala ere, lurraldea sustatzeko jarduera eta kanpainia txikiak ere egiten dira Geoparketik zuzenean lurraldea sustatzeko.

Turismoa sustatzeko azokak, Basquetour edo San Sebastian Region-en eskutik, parte hartzen dugu azoka guztietan. Gainera, EGNrekin (Europako Geoparkeen Sarearekin) batera, stand propioa izan

dugu FITURen eta ITB Berlinen. Fiturren, Geoparkeen aldizkariaren aurkezpena egin zen Euskadiko standean, eta jende asko bildu zen. Aurten, gure geoparkeak koordinatu du aldizkaria, eta, beraz, Euskadiko standean eta Geoparkeen standean bertan aurkeztu da.



Bilbao Turismok gonbidatuta, Aste Santuan Basque Fest 2019ra joan gara, egun horietan Euskadin dauden bisitariak Geoparkera erakartzeko ekintza estrategiko gisa.

Geoparkearen sustapen-materialak eguneratuta mantentzen dira. Material hori bertako turismo bulegoetan eta eskatzen zaigun azoketan banatzen da. Bisiten denboraldia hastearekin batera, programazioaren liburuxkak bidali ziren Euskadiko turismo-bulego nagusietara. Donostia Region bulegoa Geoparkearen informazioa biltzeko gune garrantzitsua izaten ari da, Gipuzkoarentzat helmuga estrategikoa garelako. 2019an, honako hauek egin dira:

1. Bisita gidatuen 2019ko programaren liburuxka eus/cas.
2. Bisita gidatuen flyerra ingl/fr.
3. Geoparkeko mapa (Basquetour bilduma) 4 hizkuntzetan.
4. Geoparkearen mapa geologikoa (gaz/eus).

Bestalde, hain ezagunak ez diren edo sustapenerako zailtasun gehien dituzten bisitak sustatzeko ekintza zehatzak garatzen dira.

2019ko udaberrian, bisita gidatuen denboraldiari hasiera eman zitzaion. Debatik Zumaiara oinezko txangoa egin zen eta ondoren itzulia itsasontziz. Ibilbide hau eta Deba eta Zumaia artean egiten den itsas irteera gidatua sustatzeko asmo bikoitzarekin. 2019ko udazkenean bigarren umea doan promozio berezia egin da Geoparkearen bisita gidatu guztietan. Promozio hori irratian, sare sozialetan, newsletter bidez eta "Lonifasiko" webgunearen eta blogaren bidez egin da.



Portuetako irteera guneean, Algorri interpretazio zentroan eta hiru turismo bulegoen kanpoaldean bisita gidatuen programa duten panelak jarri dira urtero bezala.

Bisiten material grafikoa gidarientzat. Materiala, hala nola karpetak eta fitxak, urtero eguneratzen dira diskurtsoan eduki berriak sartzeko beharra dagoelako edota hondatuta daudelako. Aurten "Nautilus, flyscheko fosilak" bisita berrikusi da. Azken bi urte hauetan sustatutako ikerketen emaitzak bisitaren diskurtsoan sartu behar ziren. Beraz, diskurtsoa eguneratu da, eta diskurtso hori bultzatzen duten material grafikoak egin dira bisita hau egiten duten gida guztientzat.

Geoparkea merkaturatzeko bide nagusia bere webgunea da, eta urtetik urtera online erreserba-motorraren erabilera gora egin du. Aurten erreserba guztien %79 -a online egiten da, eta %21a turismo bulegoetan. Online salmentak bultzatzen jarraitzea da helburua, turismo bulegoak lan karga horretatik askatzeko.

"Flyscharen Ibilbidea" bisita merkaturatzen jarraitzen da Norte Sur Incoming agentziarekin, Euskadi turismo atariaren bidez. Equinoccio bidaia-agentziak eta San Sebastian Region turismo-bulegoak bisita gidatuen programa osoa eskaintzen dute, bai webgunearen bidez, bai bulego fisikoetan.



DETALLES DE LA ACTIVIDAD

SALIDA GEOLOGICA

Zumaia
Vistas



3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.1 IBILBIDE ETA BIDEZIDORREN DISEINUA

Euskadiko Geodibertsitate estrategiari lotuta eta Eusko Jaurlaritzako Natura Inguruneko Sailak zuzenean sustatuta, **Mutriku eta Debako Karst Pinakularra** GIG 63.a interpretatzeko plataforma jarri da erregibidean, Sasiolara (Deba) bidean.

Geoparkearen 6 **georutak** egiteko deskarga daitezkeen fitxak egin dira, bidezidorrari eta ibilbidearen interesguneei buruzko informazio praktikoarekin. PDF horiek webguneko Georutak atalean zintzilikatuko ditugu hiru hizkuntzetan: euskaraz, gazteleraz eta ingelesez, eta bakoitzak zenbat deskarga dituen jakiteko aukera izango dugu.

3.2 INTERPRETAZIORAKO AZPIEGITURAK

Santa Katalinako begiratokiko 6 panelen maketazioa eta testuak egin dira. Biotopoak beste interpretazio-puntu bero bat du geodibertsitateari, biodibertsitateari eta kultura eta tradizioei buruz.

Zumaiako **"Denboraren lerroa"** jarri eta aurkeztu da, Zumaiako Algorri bidezidorra egokitzeko proiektuaren amaiera gisa. Helburua tokia ordenatzea zen, eta bisitariak eta haien fluxuak birbanatzea. Denboraren ildoak aukera bat gehiago da pertsonen trafikoa dibertsifikatzeko.

3.3 INGURUMEN NATURALAREN BABESA ETA KONTSERBAZIOA

- 2018an Elorriaga inguruan heskai bizia lehengoratzeko irekitako lan ildoarekin jarraitzen dugu. Hori horrela, 350 zuhaitz landatu genituen Zuhaitzaren egunean Gipuzkoako Foru Aldundia eta Itziarko Auzo Udalaren laguntzarekin.



- Surfrider Fundazioarekin elkarlanean aritu gara boluntarioekin egindako OSPAR kanpainan.
- **Funtsezko iknofosilen** kontserbazio-egoera berrikusteko eta eroritako ale interesgarriak biltzeko kanpaina.
- Debako hilerriko ibai-paleo-terraza kontserbatzeko lehen kudeaketak. Unibertsitatearekin eta udalarekin harremanetan jartzea.
- Hezeguneen nazioarteko egunaren ospakizuna, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek gidatutako Itziar inguruko putzuak ezagutzeko landa-irteera batekin.
- BIOTOP ospakizuna Errotaberrin, biodibertsiterako topaketak, bi helbururekin: alde batetik, tokiko biodibertsitatea eta herritarren zientzia-sarea ezagutzera ematea, eta, bestetik, bertako tresnen erabilera azaltzea. Topaketa hori Aranzadiko talde handi batek ere gidatu zuen.
- Familiei zuzendutako zuhaitzak ezagutzeko tailerra, Izarraitz Natura 2000 Sareko KBEaren balio naturalak ezagutarazteko.
- Mendien Nazioarteko Eguna da abenduaren 11a, eta horren harira *“Mendiak, ura eta Klima Aldaketa”* mendi ibilaldi gidatua antolatu genuen abenduaren 14an.



MENDIAK, URA ETA KLIMA ALDAKETA
ANDUTZ-era Mendi Ibilaldia
Mendien Nazioarteko Eguna 2019
 #MountainsMatter

Abenduak 14, larunbata
 9:30ean Itziaroko plazan / 4 ordu

Iñaki Antiguada eta Ane Zabaleta geologoek gidatua

Arropa eta oinetako egokiak eraman
 12 urteik gora

PLAZA MUGATUAK
 Izena ematea:
labur.eus/mendiak2019
 Tf. 943 19 24 52







4. ARDATZA: KOMUNIKAZIOA ETA GEOPARKEAREN KUDEAKETA

4.1 PLANIFIKAZIOA, ANTOLAKUNTZA ETA PROIEKTUAREN KUDEAKETA OROKORRA

Lan taldea:

Pertsonal propioa:

- **Gerentziak** geoparkearen kudeaketa orokorreko eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sareko (EGN/GGN) eta Geoparkeen Espainiako Batzordeko (CNEG) ordezkari-tuntzioak bere gain hartzen jarraitzen du.
- **Bisita gidatuen dinamizatzailea.** Bisita gidatuen kudeaketa eboluzionatuz joan da, eta turismo bulegoetarako lan karga handituz. Estrategikoki erabaki zen Geoparpenek zuzenean kudeatzea bisitak, merkatuak eskatzen dituen ikuspegi zabalago eta aukera berriak emanez.

Kanpo asistentziak:

- **Zuzendaritza zientifikoa** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmen baten bidez finantzatzen jarraitzen da. Funtzio nagusia zientzia eta dibulgazio arloa koordinatzea da. Geoparkeen Sareko (EGN/GGN) ordezkaria da, eta EGNko Aholku Batzordeko kide hautatu dute. Gainera, Geoparkeen Espainiako Foroko koordinatzailea da.
- **Komunikazio Zerbitzua eta prentsa-kabinetea** Debegeasari azpikontratatu zaizkio. Bere egitekoa komunikazioa kudeatzea da: prentsaurrekoak, prentsa-oharrak, aurkezpen publikoak, webgunearen kudeaketa, aldizkari elektronikoa, komunikabideetako publizitatea, etab. Aurten pertsona-aldaketa egon da, baina zerbitzua berdin mantendu da.
- **Community manager** (RRSSko kudeatzailea), @Geoparkea estrategiarako Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube sare sozialetan.
- **Ingurumen eta jasangarritasunaren koordinazioa**, naturgune babestuetan (ENP) eta ingurumen-hezkuntzako ekintzetan jarduketak sustatzeko helburuarekin kontratatzen da. Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Geoparpen Sailarekin sinatutako hitzarmenaren bidez finantzatzen da. Jasangarritasunaren arloa kudeatzeko lan orokorra garatzen du, Geoparkearen ordezkagarriritasunarekin. Geoeskolen proiektuaren arduraduna da.
- **Kontabilitate-aholkularitza eta aholkularitza juridikoa** ere azken urteetan azpikontratatuak enpresa berekin egin dira.
- **FLC** lehen mailako auditoria, Interreg arku atlantikoa proiektuaren ziurtagirietarako kontratatu da. Dokumentazioa EBra bidali aurretik, erregistratuak eta EBk aitortutako enpresa batek ikuskatu behar du.

4.2 “ATLANTIC GEOPARKS” PROIEKTU EUROPARRA – INTERREG ARCO ATLÁNTICO PROGRAMA

Geoturismoa ondarea interpretatzeko teknologia berriak bultzatzeko asmoz, Interreg proiektua onartu zuten beste 12 bazkiderekin batera; 9 Geoparke, Geoparke izateko bi hautagai, eta Alto Douro y Trasmontes UTAD Unibertsitatea, proiektuaren lider gisa. Proiektu honek 30 hilabeteko iraupena du, eta 1.946.500 €-ko aurrekontua guztira, EB-k %75 finantzatzen du. 2019an, 12 hilabeteko luzapen-eskaera onartu da, eta, beraz, 2020ko azaroan amaituko da.

Interreg proiektuaren esparruan, 2019an Sevillan ospatu zen Geoparkeen Europako Sarearen Konferentzian proiektuan sortutako bideoak aurkeztu ziren. Horrez gain, komunikazioaren eta gaikuntzaren arloko beste ekintza batzuk ere egin dira. 2019ko ekainan Marble Arch Caves Geoparkean jarraipen bilera egin zen (Irlanda Errp. - Ipar Irlanda). 2019ko abenduan, proiektuaren bigarren ziurtagiria egin zen.



4.3 EGN eta UNESCO-REN ARTEKO HARREMANA

Geoparkearentzat gai estrategikoa da nazioarteko sarearen barruan ondo kokatuta egotea.

2018a errebalida urtea izan zen. Uztailean, Unescoren bi ebaluatzailek azken lau urteetan Geoparkean egindako aurrerapena egiaztatu zuten, 2014an azken errebalida egin zenetik. 2019ko martxoan, EGNren Koordinazio Batzordean, Swabian Alb UGG-n ebaluazioaren emaitza TXARTEL BERDEA zela jakin genuen.

Geoparkeen Europako Sarea (EGN) leku hauetan bildu da 2019an, eta modu aktiboan parte hartu dugu:

- Koordinazio Batzordea Swabian Alb Ugg, Alemanian, 2019ko martxoan.
- Koordinazio Batzordea eta EGNren Europako XV. Biltzarra, Sierra Norte de Sevilla Ugg, 2019ko irailean.

Hitzaldi horretan paper nabarmena izan genuen, Asier Hilario zuzendari zientifikoak "Geoparks, memory of the Earth, future for the people" irekiera hitzaldia eskaini zuen, eta bi ahozko komunikazio egin ziren, izenburu hauekin:

- “We got it” txartel berdea ospatzeko egin zen marketing kanpainari buruz, Leire Barriusok.
- “Quantitative method for assessment of the spanish geoparks as a whole” Asier Hilariok

Interreg proiektuaren baitan egindako bideo bateratua aurkeztu genuen jendaurrean, talde-lanaren adibide gisa.

Europako Sarearen lantalde (WG) hauetan aktiboki parte hartzen dugu:

- WG foroko koordinatzaileak. Bertan, geoparkeen indikadoreak biltzeko ekimena partekatu zen.
- WG Sustainable Development Goals (ODS). Agenda 2030 Tree ekimenean parte hartzen dugu.
- WG Hezkuntza. Sevillako Geoparkeen XV. Biltzarrera joatea eta tailerrak antolatzea, irailan.
- WG Geoheritage. IUGSek proposatutako dokumentuari ebaluazioa eta ekarpena egitea, nazioartean garrantzia duen ondare geologikoa definitzeko.
- WG Fossils. Europako geoparkeen fosilak erakusteko testuak idaztea eta materialak prestatzea, sareko koordinazio-batzordeak Swabian Albs-en egindako bileran azalduta.



Euskal Kostaldeko Geoparkearen bi ordezkari ofizialek UNESCO geoparkeak ebaluatzeko misioak egiten dituzte. 2019an, hauek izan dira ebaluatutako lurraldeak:

- Zhangye Geoparke hautagaiaren ebaluazio misioa, Chinan.
- Cliffs of Fundy Geoparke izateko ebaluazio misioa, Kanadan.

- Río Coco Geoparke izateko ebaluazio misioa, Nicaraguan.
- North West Highlands Geoparkea berresteko misioia, Eskozian.

Swabian Alben (Alemania) egindako koordinazio-batzordearekin bat etorritik, Geoparkeko bi ordezkari ofizialek ebaluatzaileen ikastaroa egin zuten, nahitaezkoa ebaluazio-misioak egiteko.

Urtero ekarpen ekonomikoak egiten zaizkie bai Europako Sareari bai Geoparkeen Sare Globalari. Ekarpen ekonomiko horretaz gain, EGNren 17. magazinaren argitalpenean aktiboki parte hartu da, "We got it!" artikuluekin.

Sareko lanari eta trebakuntzari egin beharreko ekarpenen artean aholkularitza lanak barne hartzen ditu. Aurten beste Geoparke proiektu batzuei lagundu diegu, hala nola:

- Ortegalekurraren geoparke proiektua, Galizia.
- Kalatrabako bolkanen geoparke proiektua, Ciudad Real.
- Armorique geoparke proiektua, Frantzia.
- English Riviera Geoparkearekin lankidetzat.

GGNko kideek Espainian osatzen duten Geoparkeen Espainiako Foroak jarduera handia du. Asier Hilario da foroaren koordinatzailea, eta 2019an egin diren jardueren artean, honako hauek daude:

- EGN eta GGNrako Foroaren jardueren urteko laburpena.
- Foroaren bilerak antolatzea eta dinamizatzea Swabian Alb eta Las Loras-en.
- Geoparkeen Espainiako Foroaren IV. Jardunaldi irekietan parte hartzea eta aurkeztea, Las Loras-en.(Burgos-Palenzia).

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Sailak Euskadi 2030 gunea ekimena jarri du martxan. Topagune honetan 20 erakunde publiko eta pribatu baino gehiagok parte hartzen dugu, eta Agenda 2030 euskal erakundeen testuinguruan jorratzea du helburu. Geoparkea taldeko kide da, eta Garapen iraunkorrerako helburuak garatzeko beste erakunde batzuen traktoretzat hartzen da.

4.4. EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREARI BULTZADA (EHUS)

UNESCORI lotutako 20 erakunde inguruk parte hartzen dugun EHUS sareari bultzada emateko, sarearen eta kideen aurkezpen gisa balio duen aldizkaria argitaratu dugu. .

4.5 KOMUNIKAZIOA

ONLINE Komunikazioa

Webgunea eta sare sozialak dira Geoparkearen komunikazio tresna nagusiak. 2019an, euskarri desberdinak honako helburu hauekin kudeatu dira:

- Geoparkearen online presentzia eta komunikazioa areagotzea.
- Geoparkea markaren kudeaketa sare sozial nagusietan (Facebook, Twitter eta Instagram).
- Geoparkearen Youtube kanala kudeatzea.
- Geoparkeari lotutako elkarrekintza eta elkarrizketak sortzea.
- Geoparkea erreferentziatzko erakunde gisa kokatzea honako arlo hauetan: dibulgazio geologikoa eta zientifikoa, esperientzietan oinarritutako turismoa eta tokiko garapena.
- Trafikoa geoparkea.eus webgunera bideratzea.
- 2.0 komunitate leial baten epe ertain eta luzerako sorrera sustatzea.

Gaur egun 4.036 jarraitzaileko komunitate egonkorra dugu Twitterren eta 4.481 Facebooken, iaz baino % 11 eta % 8 gehiago. Instagramen %40ko igoera izan dugu, 1.592 jarraitzaile izatera iritsiz. Geoparkeak geroago egin du sare horren aldeko apustua, eta, beraz, oraindik ere hazteko tarte handia du.

Webgunearen kudeaketa eta erreserben zentraleko hobekuntzak urtero egiten diren lanak dira. www.geoparkea.eus etengabe eguneratzen ari den webgunea da, eta bertan albiste ugari argitaratzen dira. Gainera, urtero edukiak eguneratzen dira eta atal berriak irekitzen dira. Denboraldi bakoitza hasi aurretik, hobekuntza ugari egiten dira bisita gidatuen atalean eta erreserba-prozesuan. Sistema sofistikatuz doa erreserben kopurua handitu ahala. Webgunearen eduki guztia lau hizkuntzatan dago. 2019an, honako jarduera hauei ekin zaie: promozio berezietarako deskontu-kodeak eta sistemaren kudeaketarako hobekuntzak.



OFFLINE komunikazioa

Komunikazioa oso garrantzitsua da Geoparkearentzat, bai online komunikazioa, bai offline. Horretarako, aholkularitza emateko eta komunikazio-ekintza nagusiak egiteko kontratatutako laguntza teknikoa dago.

2019an, honako ekintza hauek egin dira:

- 3 newsletter elektronikoren bidalketa.
- 29 albiste webgunean.
- 18 prentsa-ohar.
- 18 irrati-elkarrizketa.
- Telebistan hamabost egunean behin agertzea ETB1eko "Ahoz Aho" saioan.
- Nazioarteko sustapena Volvo enpresaren youtube kanalean.
- "Natura" EITBko saioan agerpena Alberto Iñurrategirekin.
- RTVEko "Senderos del Mundo" saio berriak programa bat grabatu zuen Geoparkean.



Hedabide desberdinetan: irratian, prentsan edo aldizkari espezializatueta publicitate txertatu dugu. Batez ere, hiriburueta zabaltzeko den hedabideetan, eta turismo-jarduera txikieneko hilabeteak indartzeko helburuarekin. Nabarmentzekoak:

Baleike tokiko aldizkarian egindako ekarpena, hileko artikuluko zientifikoekin:

- *Algorri eta dinosauroen desagertzea: Mexiko eta India lotzen dituen teoria ikusgarria.*
- *Mutrikuko Amonite erraldoien misterioa.*
- *Harriz harri, mendiz mendi. Pirinioen historia ezkutua.*
- *Mendiko hezeguneak*
- *Itsasoaren azidotetasuna.*

- *Padurako hegaztiak.*
- *Biotop, biodibertsitateko topaketak.*

Artikulu horiek aldizkariaren edizio digitaleko Izarren hautsa atalean aurki daitezke: <https://baleike.eus/bereziak/izarren-hautsa>

Tokiko biztanleei zuzendutako kanpaina

Bereziki tokiko biztanleei zuzendutako ekintza gisa, street marketing kanpaina bat egin da, lau urteotako ebaluazioaren ondorioz lortutako "txartel berdea" ospatzeko. Kanpaina horrek oihartzun handia izan du hedabideetan eta tokiko biztanleen artean. Helburua txartel berdea lortzeari duen garrantzia ematea izan da eta baita bertako biztanleak Geoparkean bititzeaz harro sentiaraztea. Gainera, 9.000 postal egin eta postontzietan banatu dira, txartel berdeak simulatuz, herritarrak kontzientziatzeko eta informatzeko. Sare sozialak ere erabili dira kanpaina hau aurrera eramateko.



Kaixo! Postal bat bidaltzen dizutartzat, kontatzeko izugarri ikasi dudala geologiaz, baina baita euskara ere. Laster arte.

Kaixo! Te envío esta postal desde Barcelona para contarte que he aprendido un montón de geología pero también un poco de euskera. Hasta pronto.

UNESCO: Euskal Kostaldeko Geoparkeari bigarren aldiz eman diot txartel berdea ospatzeko, bizi gaituen jendearen iruzkinak bildu ditugu. Kalifikazio hori esker, beste lau urtez eutsiko diegu UNESCOren Munduko Geoparke lantzenari.

Para celebrar la tarjeta verde, máxima distinción con la que UNESCO ha vuelto a reconocer al Geoparque de la Costa Vasca, hemos recopilado comentarios de gente que nos ha visitado. ¡Cuatro años más como Geoparque Mundial de la UNESCO!

To _____

Deba _____

Mutriku _____

Zumaiia _____



5. ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA

5.1. LEHEN SEKTOREARI BULTZADA

Geourmet saskiak saltzen jarraitu dugu hiru turismo bulegoetan, bertako produktua balioan jartzeko eta Geoparkea sustatzeko. Hainbat enpresak, udalek eta abarrek konpromisozko oparitarako erabiltzen dute saskia. Kirol lehiaketa berezietako sarierako ere erabiltzen dira.

5.2. EUROPAKO GEOPARKEEN ASTEA

"Lur azpiko mundu sekretua" lelopean jarduera ugari programatu ziren maiatzaren 17tik 25era, bisita gidatuak, tailerrak, ikastaroak, lehiaketak edota hitzaldiak, besteak beste.

Ekimen honen helburua, Europa mailan, Geoparkea figura ikusaraztea eta bertako herritarrek beren jardueretan parte hartzera gonbidatzea da.

<p>Maiatzak 17, larunbata</p> <p>GEOLÓGIA 2019: "Madrilko animalia errelikioak", Boronhatze totala.</p> 	<p>Maiatzak 18, igandea</p> <p>Mendi itxera "Geoparkeko Itza", 1. etapa: Bizarra eta Otsa, 9:00etatik 13:30era. Muga indurialdiko azarabiztan (Palaia) Boronhatze: Mendiak Turismo Bulegoan, T. 945 303 978 (Aulere autobusak, plaza mugatuak).</p> 	<p>Maiatzak 22, osteguna</p> <p>Geotalks: "Zumaia eta dinosauroen desagertapenaren gakoa. Historiaren atzean dagoen istorioa".</p> 	<p>Maiatzak 23, osteguna</p> <p>Talerra "Astea argirik gabeko naturari zuzenean mugatzen". Boronhatze: Boronhatze eta Soria Aldearen eskutik (gaitelak): 9:00etatik 18:00etara (Eskutak) Zumaia Aldearen eskutik (gaitelak): 11:00etatik 13:00etara. Otsa, Mubila. Otsa "Nazio" kodea erabiliz. Boronhatze: www.geoparkea.eus</p> 
<p>Maiatzak 27, ostiruna</p> <p>"Naturak 25 urteko" iburuen aurkezpena (suskari) eta saskiak (gaitelak) Maki Aizpuru ibilgailuan eta Carles de Hita naturaren suntuak azalduen eskutik. Antzuola, Espulako Foru Abundia, 19:00etan. Zaidi Jauregan, Mubila.</p> 	<p>Maiatzak 18, igandea</p> <p>Espeleologia itxera Ermitia leku kobardora, 19:00etan. Otsa eta Anasoren ibar 13. orratz. Boronhatze: Daxko Turismo Bulegoan, T. 945 197 452</p> 	<p>Zinema eta zientzia. "El día que murió el mesozoico" dokumentalaren errealitate eta saskiak (gaitelak). Hitzaria: Jose Antonio Arz, Zaragozako Unibertsitateko paleontologoa eta K/T mugen erloia, eta Estibaliz Apellaniz, EHUKo paleontologoa eta Zumaia herriaren auzolaria. Mugarak: Aste-Hitako, Geoparkeko zuzendaritza zentifikatua. 19:00etan, Aita Mari Zinema, Zumaia.</p> 	<p>Ate irekiak Nautika Interpretazio Zentroan, Mubila. Otsuga: 10:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.</p> <p>Maiatzaren 10.eko ekimenen 5.a</p> <p>Aste Erakusketak "Ekin, 50. urteurrena", Anasori Zientzia Biltzarren eskutik, Otsa Agirri Jauregiaren erakusketak erantsen. Asteartik larunetara, 18:00etatik 20:00etara, igandean, 12:00etatik 14:00etara.</p> 
<p>Ate irekiak Nautika Interpretazio Zentroan, Mubila. Otsuga: 10:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.</p> 	<p>Maiatzak 21, ostiruna</p> <p>Talerra: "Unak eraman ez zuten paisaia". EHUKo eta Anasori Zientzia Biltzarren eskutik. Unak era helduak, 18:00etatik 20:00etara, Anasori Zientzia Biltzarren eskutik, Daxko.</p> 	<p>Maiatzak 23, osteguna</p> <p>Hitzaldi: "Prácticas de Bases Paleontológicas sobre el Mesozoico" (gaitelak). Hitzaria: Xabier Penabaz, Anasori Zientzia Biltzarren eskutik, 19:00etan, Otsa eta Kultur Biltzarren.</p> 	<p>Geoparkearen Astearen 10. urteurrena</p> <p>Ate irekiak Agirri Interpretazio Zentroan, Zumaia. Otsuga: 10:00etatik 13:30etara (lehenetik gaitelak).</p> <p>www.geoparkea.eus</p> 

Hirugarren urtez jarraian egin da Geotalks izeneko ekimena, zientzia beste diziplina batzuekin konbinatuta aurkeztu nahi duena, eta horrek izaera berritzailea ematen dio. 2019an Zumaia Aita Mari zinemaren "GeoTalks: Zumaia eta dinosauroen desagertapenaren gakoa. Historiaren atzean dagoen istorioa"; "El día que murió el mesozoico" dokumentalaren proiektzioa eta mahai-inguruarekin. Mahai-inguruan Jose Antonio Arz Zaragozako Unibertsitateko paleontologoa eta Estibaliz Apellaniz EHUKo paleontologoa parte hartu zuten.

Asteazkera zehar hainbat bisita gidatu programatu ziren doan bertako biztanleentzat: espeleologia-irteera Ermitia bekoa kobara edo Karstekoa zapoak, esaterako.

Bestalde, marrazki lehiaketa da jende gehienak parte hartzen duen ekintzetako bat. Aurten gaia "Espeleologia naiz" izan da eta 557 marrazki inguru jaso dira. Sari ezberdinak banatu ziren, sari

nagusia Enkarterrin asteburu bat eta Pozalaguako kobara bisita izan da eta, eta ziklo ezberdinetako irabazleei diplomak eta linterna bat.



Erakusketak, proiektzioak eta tailerrak:

- "Naturaldia: 25 gai pil-pilean" liburuaren aurkezpena Mutriku.
- "Urak eramaten ez duen paisaia" familia tailerra, Deban.
- "Natura argazkilaritza zure mugikorrarekin" tailerra.
- "Praileaitz I: Behe Paleolitoko azken aurkikuntzak" hitzaldia Deban.

Aste osoan zehar, Nautilus Interpretazio Zentrora (Mutriku) eta Algorri Interpretazio Zentrora (Zumaia) doan sartzeko aukera eskaini da, bertako baliabideak ezagutzera eman eta Geoparkearen ondare naturala eta geologikoa herritarrei gerturatzeko. Programa osoa sare sozialetan ere sustatu zen.